

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



BAT Soziolinguistika Aldizkariak badu bere helburuen artean Euskal Herrian izan ohi diren hausnarketa-saioetan parte hartzea eta haien berri zuzena ematea. Gero eta ugaria-goak dira egungo euskararen egoera sozialaz hitz egiteko abian jartzen diren ekimenak partekatzeko eta, etorkizun hurbilean, lehenentasunezko lan-ildoak definitzeko bilguneak, ikastaroak, topaketak edo bestelako eztabaida-saioak.

Oraingo honetan, Euskaltzaleen Topaguneak “Euskararen herria: zubiak eta palankak” izenburupean antolaturiko XIV. Topaldia hartu du BAT aldizkariak gai monografikotzat zenbaki honetarako. Eta horrela, iaz hasitako lankidetzari jarraipena emanez, Topaguneak eta Soziolinguistika Klusterrak elkar harturik antolatu dugu zenbakia.

Lau artikuluk osatzen dute zenbaki honetako gai nagusia. Lehenengoan, **Jasone Mendizabalek eta Alex Vadillok** udalen eta tokian tokiko euskara sustatzearen aldeko herri elkarteek izan ohi dituzten harremanen inguruan hausnarketa eskaintzen dute. Izan ere, hainbatetan, ibilbide kontrajarriak izan dituzten arren, elkarren laguntza eskatzen dutela argi ikusi da. Egia da, zenbaitetan, ez dela posible izaten erabateko adostasunean aritzea, izan planteamendu filosofikotzat, edota praxira eramateko orduan. Nolanahi ere, lankidetzak, beste hainbat esparrutan bezala honetan ere, gero eta beharrezkoagoa ikusten dute; “unean uneko adostasun partzialekin egin beharko dugu aurrera” diote artikuluen egileek, bai koordinazio-gunetan eta batez ere, jendea inplikatzeko helburuarekin. Horretarako, ordea, garrantzizkoa ikusten dute “gobernantza parte hartzailea” zabaltzea udalerriz udalerriz.

Bigarren artikuluan **Kike Amonarrizek** eta **Iker Martinez de Lagosek** “Bidegurutzetik ateratzeko palankak” artikulua eskaini dute. Izenburuak dioen modura, azken aspaldi honetan hainbatetan aipatzen ari den “euskararen normalizazio prozesuko ziklo aldaketa”-ren aurrean herriz herri bizi dituen euskaltzaleen mugimenduak landu ditza-keen funtzioak aztertu dituzte. Orain artean erabili izan diren diskurtsoetatik abiatuz, egokitzapen serioak egiteko garaia dela aldarrikatzen dute, ideia integratzaileak, sektore berrietara helduko direnak, eta dinamika motibagarriagoak izango direnak. Hori guztia, ordea, egungo nolabaiteko “apatia” gailenduko dituen motibazio berriak landuz. Izan ere, hori bai izan behar duela euskaltzaleen mugimenduaren funtzioa, egileen hitzetan “euskaltzaleon motibazio eta bizi-indarra indartu, konpromisoen dinamikatatik urratsak emanez lorpen dinamika berrietara” heltzeko.

Iparaldeko ikuspegia ekarri dio Bat Aldizkariari **Xan Airek** ondorengo artikuluan. Oinarrian, azpimarratu nahi izan du Ipar He-goaren arteko zubigintzan aurkitzen diren trabak azpimarratu, irudipena badagoelako hego aldeko euskal eragileen arteko konkurrentziek ez diotela laguntzen iparraldeko mugimenduen fokalizatzeari. Erreferente argien beharra aldarria eginez, euskalgintzak bere osotasunean hartu beharko lukeen zentraltasuna gogora ekarri nahi izan du bere artikuluan.

Gai monografikoa ixteko Gipuzkoako Foru Aldundian euskararen sustapenaren inguruan ardura gorena duen **Mikel Irizarrek** izikidetzaren aukerak zein diren aztertzeko helburuarekin zuzendaritzan abian jarritako

partaidetza-prozesuaren berri eman nahi izan du. Horrekin batera, azpimarratu nahi izan du “Nafarroan eta Iparraldean gertatzen ari diren aldaketa administratiboak eta erakunde publiko eta sozialen artean antzematen den hurbilketek lagungarriak izan beharko luketela euskararen aldeko aktibazioan urrats kualitatiboak egin daitezen”.

GUREAN atalean ohikoa dena baino artikulua gehiago bildu ditugu oraingo zenbakian. Alde batetik, oso interesgarria iruditu zaigu 2016ko abenduan Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren testuinguruan ospatu ziren bi ekimenen baitan eskaini ziren bi gertakarien berri ematea. Lehenengoan **Paul Bilbaok** “Donostiako Protokoloa” izenarekin aurkeztu zen “Europako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa” eratzeko prozesua aurkeztu du bere artikuluan. Protokolo horretan hizkuntza gutxituak babesteko 185 neurri bildu dira lan-ildoak proposatzeko, eta, batez ere, nazioartean zein ibilbide izan dezakeenaren proposamena egiteko.

Ondorengo artikuluan **Fernando Ramallok** “Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 25. urteurrena” artikuluan, Europako eremu urriko hainbat hizkuntza babesteko eta sustatzeko “Gutunak” izan duen garrantzia azpimarratu nahi izan du, baina azpimarratuz, oraindik ere, lan handia egin behar dela hizkuntza horien sustapenerako, baita ituna onartu den estatuetan ere.

Soziolinguistika Klusterraren eta EHUko ikerketa talde baten lankidetzan garatzen ari da “Jendaurrean erabili” proiektua, azaltzen dute elkarlanean idatziriko artikuluan **Eduardo Apodaka** eta **Idurre Eskisabel** EHUko irakasleek eta **Uxo Anduaga** eta **Pablo Suberbiola** Soziolinguistika Klusterreko teknikariek. Proiektuan parte hartu dute EHUK, Gipuzkoako Aldundiak, Athletic-ek, EITB-k, Guggenheim Museoak, Getxoko Udalak, ELA sindikatuak, Adegik eta AEK-k (ikus daitekeen bezala, oso esparru zabal eta erreferentziako elkarteek). Ikuspegi teorikoa “Praktika Komunitatea” deituriko subjektuan jarri dute, eta helburua izan da euskarazko komunikazio publikoan aritzen diren erakundeek komunitate horren parte izateko kontzientzia gartzea, jendearen aurreko euskararen erabilera hobetzeko asmoz. Artikuluan, esparru publikoan euskara naturaltasunez aritzeko dauden egiturazko eragozpenak eta erresistentziak zehaztu dituzte, eta, garrantzizkoagoa dena, horiek gainditzeko eragileek identifikaturiko moduak azaldu.

Ondorengo artikuluan **Jon Artzak** azken 30 urteotako (Euskararen Legea onartu zenetik) euskararen inguruan zabaldu diren diskurtsoen berri eman du. Bere helburua izan da, alde batetik, abian jarri zenean diskurtso horien mailan zer espero zena aztertzea, eta, beste alde batetik, gaur egun egiten den irakurketarekin eta zabaltzen ari diren diskurtsoekin alderatzea.

Atal honi amaiera emateko, **Iñigo Beitiaren** artikulua eskaintzen du aldizkariak. “Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak” izenburuko artikulua 2016ko HAUSNARTU sarietara aurkezturiko lana da, eta, nahiz eta lehiaketan saririk jaso izan ez, BAT-eko argitalpen batzordeak egoki

ikusi du argitaratzea, euskararen inguruan gertatzen ari den fenomeno interesgarri baten berri ematen duelako.

Bere ikerketan Beitiak, Eskoriatzako kasu zehatza aztertuz, gazteek hitanoa zein balore eta usterekin lotzen duten jakin nahi izan du. Oso deigarria da hitanoa era normalean oraintsu arte erabili izan den hainbat lekutan galtzen doan bezala, aspaldian galduta zegoen beste hainbatetan gazteek erabiltzeari ekitea. Oraingo erabilerak ordea, ezaugarri berriak erakusten ditu, eta, hainbatetan, arauetatik aldenduz. Hori da, hain zuzen artikulua honetan erakusten denaren arabera Eskoriatzan gertatzen ari dena. Ikerketa 18-30urte bitarteko gazteei eginiko elkarrizketen azterketan oinarritu da, beraz, metodo kualitatiboan. Eta helburu nagusia izan du erabilera hori zer balioekin lotzen duten identifikatzea, ziur asko beste hainbat udalerritan gertatzen ari denaren ispilu izanik, hainbat orokortasun ateratzeko moduan izan gaitezkeelakoan.

BAT aldizkariako 103 zenbakia amaitzeko *Munduko soziolinguistikaren leihoa* atalean Kroaziako hizkuntza gutxitu baten berri eman nahi dizuegu, Maximiljana Barancik idatziriko artikulua biratez. “Zadarreko arbanasiera mintzaira, kontaktuan dauden hizkuntzen isla” izenburupean, hizkuntza horren lexikoa etimologikoki aztertu du egileak, kroazieraren eragin soziolinguistikoa nola islatu den hizkuntzan erakusteko.

Bertako eta Europako soziolinguistikaz gehiago jakin nahi duenarentzat interesgarria izango delakoan artikulua sorta zabala osatu du BAT aldizkariak. Ea horrela den. •